

Intxaurrondo

Aitor Navarro (fnoa.: 943 - 28 89 19)

datorren astean, hilak 30, Intxaurrondoko Ipar Haizea elkartearen euskararen aldeko plataforma berria eratuko da: "Plazara". Plataformako kideen asmoa, auzoan euskararen erabilera sustertzea da.

"Gure asmoa, Intxaurrondo osoan euskara nonahi zabaltzea da. Duela 10-15 bat urte kanpotar ugari etorri zen auzora. Etorrinen badakite nora etorri diren, eta, hemen euskaraz jardun nahi dugula ulertu behar dute. Gure helburua euskaldunei zein euskaraz ez dakitenei euskaraz bizitzeko aukera ematea da" esan digu Bittor "Plazara"-ko kideak.

Auzoko hainbat taldek bat egin dute plataformaren ekimenarekin, hala nola, AEK-k, EHEk, Zulo Zahar eta Bagera elkarteek eta Intxaurrondoko Gazte Asanbladak.

Euskalgunea sortu nahian

Orain artean 10 bat pertsonak jardun dute lanean ekimena aurrera ateratzeko. Nolanahi ere, Bittorrek dioenez, laguntza gehiago behar dute, izan ere, hainbat esparru ukitu nahi dituzte: kultura, aisialdia, gizartea, gaztedia...

Plataformako kideen us-

Euskara, jalgi hadi auzoko plazara

"Plazara" izeneko plataforma sortu da

Bittor:

"Auzotar guztiei euskaraz bizitzeko aukera eman nahi diegu"

tez, haurren esparrua garrantzi handikoa da. Hargatik, haur eta gurasoen taldea osatu nahi da.

Era berean, beharrezkotzat jotzen dute auzoan euskalgune bat edukitzea. Euskalgune horretan kultur ekitaldiak antolatuko lituzkete: hitzaldiak, erakusketak, antzerkiak... Bittorren esanetan, euskalgunea ez dago egun batetik bestera sortzerik.

"Bagera edo Ttakun auzoko elkarteek legez, guk ere euskalgunea sortu nahi dugu. Hala ere, horretarako lan handia egin behar da, eta noski jardun horretan ezinbestekoa da dirua lortzea" diosku Bittorrek.

Momentuz, taldeak ez du diru iturri finkorik. Diru laguntza bat eskatu dute



Plataformakoek bazkideak lortu nahi dituzte.

Kultura Patronatua baina oraindik ez dute erantzunik jaso.

Gauzak horrela, beren asmoa auzotarren artean bazkideak lortzea da.

Egoera soziolingistikoa mintzagai


Plataformakoek erronka gogorra dute, hala ere, badakite lana eginez beren ametsa egi bihurtu daitekeela.

"Ekimena orain dela denbora dezente bururatu zitzagun. Jendearen lanari

esker, behintzat plataforma sortzea lortu dugu. Geroakoak gero" diosku Bittorrek.

Plataformaren eraketaren haritik, hilaren 30ean, arratsaldeko 20:00etan Ipar Haizea elkartearen egoitzan, mahai ingurua egingo da.

Hizlariak Euskararen Udal Patronatuko zuzendari Inazio Agirre eta Donostiako euskararen normalizazio planaren idazkeran aritua den Patxi Larrañaga izango dira. Intxaurrondoko egoera soziolingistikoa izango dute mintzagai.



Decoraciones **Gros**

Linos

Produktu naturalak
(Pintura, argizari,
olioak, etab...)

- Parketa eta dornadurak
- Gorpuzkera guztiko lurzorua
- Hormetako estaldunak

San Frantzisko, 19 behea
Tel. eta faxa: 943 27 85 05

GEROA
Inmobiliaria

Zabaleta, 48 - behea
20002 Donostia
Tel./Fax: 943 29 27 87

MAHALA baserriko
esneki naturalak



- BEHI GAZTA FRESKOA
- YOGURRAK: NATURALAK • DESNATATIAK
- FRUITUDUNAK

Mahala baserri • LEABURU • Tfnoo.: [943] 673499